

EUDELeK eta Emakundek euskal emakumezko alkate eta zinegotziei zuzendutako Virginia Woolf BASQUESKOLA 2016 izeneko programa berria aurkeztu dute

- 'Basqueskolak' orain arteko lanari ekin dio berriro ere legegintzaldi berrian, Euskadiko udalerrietako emakumezko hautetsien artean **sareak eta aliantzak eratuz**, eta hiru lurraldeetan estrategia **parte-hartzaile nahiz deszentralizatua** sustatuz.
- Ekimena aitzindaria izan zen 2012. urtean; halaber, Berdintasunerako Europako Gutunaren Behatokiak 'praktika on' izaera eman zion. 2016ko edizioak bat egingo du EUDEL **Europako** Udal eta Eskualdeen Berdintasun Batzordeko **presidentetzan** izango den urtearekin.
- **Informazioa eta prestakuntza lortzeko gunea izateaz gain, Basqueskola ahaldunderako eta gidaritzarako** tresna kolektiboa da, ezinbestekoa **Berdintasuna tokiko agenda politikoaren erdigunean kokatzeko**.
- Esparru horretan, EUDELeK eta Emakundek emakume hautetsientzako **"Politika pentsatu"** izeneko [lehenengo harrera-eskuliburua](#) aurkeztu dute.

www.eudel.eus/destacados/basqueskola



basqueskola @basqueskola

Bilbon, 2015eko abenduaren 17an. Gaur, Euskadiko emakumezko alkateak eta zinegotziak bildu dira Virginia Woolf Basqueskola 2016 ikasturte berriaren aurkezpenean. Programak "gune propioa" eskaintzen die Euskadiko udaletan politikan diharduten emakumeei. Eskolak berriro ekin dio lanari legealdi berriaren hasieran, berriz ere sare bat sortzeko asmoz euskal emakume hautetsien artean: gobernuan edo oposizioan daudenak, udalerri handietan edo txikietan ari direnak, eta sentsibiltate edo joera politiko ezberdinak dituztenak.

Izaskun Landaïdak, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariak, eta **Ibon Uribe**, Galdakaoko alkate, EUDELeK ordezkaria eta Europako Udal eta Eskualdeen Berdintasun Batzordeko (CMRE) presidente denak, ikasturte berriari ongietorria eman, eta tokiko emakume hautetsiei gonbidapena egin diete, **berdintasunaren alde kontzientzia politikoa "aktibatze"** egunero lan egiten duten emakumeei esker handituz doan sarera gehitu daitezen.

2016. urterako ikastaroen programa prestaketa-fasean dago, eta emakumezko hautetsi hartzaileen lehentasunak eta ekarpenak kontuan hartuko dira. Horretarako, **aldez aurretik galdetegia** bidali zaie, eta kontrasterako bilerak egingo dira hiru lurraldeetan. Basqueskolaren estrategia deszentralizatua, parte-hartzailea eta malgua da, emakumezko hautetsien beharretara moldatzeko.

Basqueskola 2012an sortutako ekimen aitzindaria da, eta EUDELen eta Emakunderen arteko lankidetzaren emaitza da. Programaren **ardatz nagusiak** informazioa, prestakuntza, gaitasunen garapena eta ahalduntzea dira, bakarka zein taldeka.

Honako **ikastaro** hauek **eskaintzen dituzte**, besteak beste: **coaching** mintegiak, tailerrak, eta **emakumezko hautetsi ohiekin** mahai-inguruak. Horietan, ikasleek politikan sartzean eta jardutean aurre egin beharreko oztopoei buruzko iritziak eta bizipenak partekatzen dituzte.

Eskola laugarren urtez egingo da, eta tokiko politikan jarduteko prestakuntza espezifiko, esperientzien trukaketa eta sareen sorkuntzarako proposamenak indartu ditu. Basqueskola 'praktika on' gisa aintzatetsi du Berdintasunerako Europako Gutunaren Behatokiak, eta **nazioarteko ikuspuntua** bereziki garrantzitsua izango da datozen urteetan, EUDEL Berdintasun Batzordeko (CMRE) presidentea den bitartean.

Euskadiko emakumezko hautetsiak

1979. urtetik 2015eko azken udal hauteskundeak arte, 40 urte baino gutxiago igaro ondoren, Euskadin hautetsitako emakumeen kopurua **%7,20tik %41,3ra** handitu da. Lehenengo aldiz, **ordezkaritza orekatu** gisa 3/2007 Lege organikoak xedatzen dituen gutxieneko parametroak (sexu berekoen presentzia %60 baino handiagoa ez izatea) gainditu dira.

Tokiko politikan egoera berria bizi da, eta Basqueskola programak **eraldaketa kultural** sakonaren lehen pausoa udaletatik sustatu behar dela uste du, udalak baitira herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak.

“Beharrezkoa da tokiko gobernu buru garenok berdintasuna politikaren erdigunean jartzeak duen garrantziari buruzko kontzientzia indibiduala eta kolektiboa hartzea, edukiari eta jarduteko moduari dagokienez”, esan du Ibon Uribek. **Emakumezko hautetsiek** izan behar dute eginkizun horren **liderrak**, eta gizonezko hautetsien lankidetzaren estua eduki behar dute..

EUDELe **Gobernantza Onaren ardatz demokratiko** gisa kokatzen du Berdintasuna; horixe adierazi du Uribek: *“Gobernantza Ona gizartearen konfiantza berreskuratzea eta finkatzea ahalbidetzen duen hori da, eta ez da bateragarria herritarren erdiak aukerarik ez edukitzearekin”.*

¹ Euskadiko **4 alkatetik 1** emakumezkoa da, eta udalerrri horiek euskal populazioaren **%18,82** osatzen dute.

64 emakumezko alkate (alkatetzen %25) // **1.086 emakumezko hautetsi guztira** (%41,3)

*EUDELen Herritik Herri 2015-2019 argitalpenetik aterata. Udal 1 osatzeko dago (Baliarrain-Gipuzkoa).

Emakume hautetsientzako harrera-eskuliburua

Jardunaldian, **“Politika pentsatzea: Emakume hautetsientzako harrera-eskuliburua”** liburua aurkeztu zuten **Mireia Espiauk** (Eudeleko berdintasun arloko arduradun teknikoa) eta **Marixe Noyak** (liburuaren egile kolaboratzailea).

EUDELe eta Emakundek argitaratutako eskuliburuak genero ikuspegitik jardun politikoa eta emakumeen egitekoa ezagutzeko eta ulertzeko gakoak ematen ditu, bai eta emakumezko politikarien gaitasuna indartzeko hausnarketarako elementuak ere.



Ikusi esku-liburua

Emakume hautetsien arteko elkarrizketa mahaia

María Pilar Legarra, Asteasuko (Gipuzkoa) alkatea, **Nati López de Munain**, Burguko (Araba) alkatea, eta **Amaya Rojas Ruiz**, Barakaldoko (Bizkaia) zinegotzia, hirurak ere Basqueskolako ikasleak, elkarrizketa-mahai batean aritu ziren; bertan, tokiko politikan izan dituzten bizipenez eta eskolaren helburuez jardun zuten:

- Politika egiteko beste modu batzuk ahalbidetzen dituzten baldintzak sortzea, emakumeek beren esperientziatik abiatuta arlo publikoa kudeatzeko beste modu batean eman ditzaketen espezifikotasunetan oinarrituta.
- Euskadiko tokiko politikaren ikuspegi berria sustatzea; horren arabera, genero-berdintasunak gure udaletako lana aberastu, dinamizatu eta erraztuko du.

¹ ***Ikusi erantsitako dokumentua*** (Basqueskola Monografikoa: 'genero begirada bat 2015eko hauteskundeen emaitzei')

- Sarean lan egitea, tokiko politikei buruzko esperientziak trukatzea, eta ezagutzak eta baliabideak partekatzea, politikan eragina izateko, eta tokiko politikan zirrara sortzeko.
- Tokiko politikan emakumeen parte-hartzea indartzea, nazioarte mailako esperientzien trukaketaren bidez.
- Bidea irekitzea emakume gehiagok arlo publikoan parte har dezaten, eta hori egitean aurretiazko erreferenteak eduki ditzaten.